

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Behin betiko onespina ematea zerbitzu publikoak ematearen eta administrazio jarduerak egitearen tasa arautzen duen zerga ordenantza aldatzeari

Jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onespina eman zaio zerbitzu publikoak ematearen eta administrazio jarduerak egitearen tasa arautzen duen zerga ordenantzari; epigrafe berria argitaratu da.

ERANSKINA

EPIGRAFEA: GAUA IGAROTZEA ETA ZERBITZUAK

Zerga egitatea. Tasaren zerga egitatea da gaua igarotzea, energia elektrikoaren hornidura, komunitarako sarbidea eta futbol-zelaiaren eremuan, udal lurzatietan edo udalari aldi baterako erabilera lagata duten lurzati pribatuetan emandako aparteko beste zerbitzu batzuk.

Ordaindu behar dutenak. Ordenantza honetan arautzen den tasa ordaintzera behartuta daude lurzati mugatuetan gaua igaro eta adierazitako zerbitzuen onura jasotzen duten pertsonak (autokarabanak eta antzekoak, dendak, eta abar).

Zerga kuota Tarifa hauek ordainduko dira zerbitzuarengatik: Gaua igarotzea, bainu zerbitzuak (dutxak eta komunak erabiltzea), elektrizitatea, etab. 50 euro lurzatiko.

Hobariak. Ekitaldia antolatzen parte hartzen duten pertsonak tasaren ehuneko 50eko hobaria izango dute.

Okondo, 2022ko uztailaren 29a

Alkatea

JON ESCUZA DEL CAMPO